


POTTO



gorriak

GORPUTZ ASKEEN IRAULTZA

Zapaldu eta zapaltzaile logikaren baitako subjektu zapalduak gara. Emakume izendatutako gorputzak. Zergatik ote? Zer egiten gaitu emakume? Edo gizon? Binarismo hau naturala edo berezkoa al da?

Argi daukagu ezetz! Sistema kapitalista* heteropatriarkalaren* bizi iraupena bermatzeko ezinbestekoa da kategoriazioa. Kategoriazio horrek, nola ez, normak sortzen ditu (zer dagoen ondo eta zer gaizki, zein gorputz onartzen ditugun eta zeintzuk ez, zer den normala eta zer ez, zer den moralki egin daitekeena eta zer ez...) eta norma horretatik urruntzen garen subjektu danok (gizena, zatarrak, aniztasun funtzionaldun pertsonak, putak, bollerak, marikak, transexualak, intersexualak, queer-rak*, azal txurikoak ez diren danak...) jasaten dugu zapalkuntza. Horrela, normatik gero eta gehiago urrundu, zapalkuntza ere bortitzagoa da.

Horren aurrean arazoa errotik heldu eta egoera hau pairatzen dugunon indarrak batuz herrian eragiteko taldea sortzea erabaki genuen due-la urtebete inguru. Eraldaketarako subjektu aktiboak garela sinesten dugu eta autogestioan oinarritzen gara. Bazterretako guztion artean aliantzak sortzea dugu helburu, poliki-poliki bizi dugun errealitate injustu horri buelta emateko.

Pottogorriak talde irekia eta asanblarioa da. Aipatutakoarekin bat egiten duen edonor ongi etorria da, gurekin batera errealitatea eraldatzeko. Parte



hartzeko edo zure aletxoak jartzeko hainbat bide dituzu: asanbladetara gerturatu, fanzineko, facebookeko, komunikabideetako... gure mezuak zabaltzen lagundu, mezu bidez zure ekarpena helarazi...

MUGITZEN EZ DENAK EZ DITU KATEAK SENTITZEN...
ETA SENTITU BADITUZU GERTURATU!!!

Asteartero 20:00retan elkartzen gara.



ZERGATIK PUTA JUANAK?

Herriko jaiak ere heteropatriarkatuaren isla dira, eta San Juanetan dominazio botereak ikustarazten dira non nahi. Hierarkiaren adibide argi bat txosnagunearen taula gainean aurki dezakegu, gizonezkoen presentzia gailendu egiten baita eremu honetan. Egoera diskriminatzailearen aurrean txosnagunea emakumezkoena ere dela aldarrikatu nahi genuen, gure lekua berreskuratzea erabaki genuen, jaiak, gauak, eszenatokiak eta kontzertuetako lehenengo ilarak geureak direla aldarrikatuz. Ezin baitugu ahaztu emakumearen aurkako indarkeriak ez duela mugarik, espazio pribatura mugatzen baikaituzte, espazio publikoaren botere osoa gizonek bereganatzen baitute. Galdetu ahal diozue zeuen buruari gizonezkoak nolako presentzia duten bizitza publikoan?

Espazio publikoaren aldarrikapenarekin jarraituz herriko gune ezberdinak aldarritz bete genituen, baina, batzuentzat aldarri horiek ez ziren erosoak izan, antza, baginatik odola darion gorputz bat eskandalotzat jotzen omen da gure herrian.

Kritikak alde guztietatik heldu zitzaizkigun, horien artean Arrasateko Udalaren prentsa oharra, jarritako pankarta iraingarritzat joz. Baina guk argi genuen zein zen gure helburua: emakumei ukatu zaigun espazio publikoa berreskuratzea eta ahalduntzea.

Eta zergatik erabaki genuen San Juanetako gauean eginitako ekintzan emakumezkoak soilik parte hartzea? Proposatzen dugun gorputz askeen iraultzan emakumezkoak gorputz zapaldu gisa identifikatzen gara, ahaztu bariarik gurekin batera beste hainbat gorputz errefusatu aurkitzen direla sistema honen barruan, besteak beste, transexualak, gizenak, zatarrak, intersexualak, queerrak, aniztasun funtzionaldun pertsonak, putak, bollerak... Heteroarauak emakumezkoen rol pasiboak atxikitzen dizkigu. Hori dela eta, oztopoekin aurkitzen gara espazio publikoan gure lekua egiteko. Adibidez: Urte guzti hauetan 2 emakumezko soilik egon dira Arrasateko alkatetzan, kasualitatea dela uste duzue? Tamalez sisteman ezarrita

dagoen botere harremanak areagotu egiten dira jai giroan, aurreko udaran Euskal Herrian maiz entzun behar izan genituen eraso sexisten salaketak, kasualitatea? Izan ere, zenbat gizonezko daude lehenengo ilaretan kontzertuetan? Zenbat gizonezko jasan dute emakumezkoek jasandako presioa jende aurrean parte hartzeko? Zenbat gizonezko jasan dituzte gauen formal ibiltzeko eskariak? Zenbat gizon bortxatu dituzte gauen etxera bidean? Eta zenbat gizoni ukitu diote ipurdia parrandan...Kasualitatea?

Emakumezkoen zapalkuntza sistematiakoak jarraitzen duen artean geuk gorputz askeen iraultzarekin jarraituko dugu subjektu aktibo gisa ahalduntzen, enkaputxatuz eta

txosnagunea gurea dela aldarrikatuz.

Eta puta batzuk izaten jarraituko dugu, gorputz askeak, independenteak eta gure sexualitateaz gozatzen dutenak. Sexu langileen bisibilizazioa ere aldarri gisa dugu, emakumea izateagatik zapalkuntza bikoitza jasaten duen kolektiboa baita, eta bazterturik aurkitzen den norbanako guztien elkartasuna adieraztea ezinbestekotzat jotzen dugu. Bakarrik ezin da, lagunekin bai! Emakumeen saretzea ezinbestekotzat jotzen dugu iraultza honen baitan, askeak izateko jaiok gara!

Gorputz askeen iraultza hasi besterik ez da egin, gora puta janean sua!



UDALAREN OHARRA

Hainbat herritarrek kexa aurkeztu dute kaleko "mezu iraingarriengatik"

Udal Gobernuak adierazi du kalean agertutako pankarta batzuetako "mezuak deserosoak izan daitezkeela hainbat herritarrentzat", "jaiak bake, errespetu eta festa giroan pasatzea oztopatuz".

Jaien atarian, tamaina handiko kartelak agertu dira herriko zenbait eraikin eta paretetan. Pankarta horiek, beren tamaina eta mezuengatik, iraingarriak eta deserosoak izan daitezke zenbait herritarrentzat, jaiak bake, errespetu eta festa giroan pasatzea oztopatuz. Eta ez dezagun ahaztu, festak, espazio publikoak bezalaxe, guztionak eta guztiontzat direla.

Honelako ekintzen aurrean, argi utzi nahi dugu mezu iraingarriak dituzten eta bizikidetzaren oztopatzen duten kartel eta pankarta ororen aurka azalduko garela beti. Era berean, azpimarratu nahi dugu ordenantza berriarekin horrelakoak ordenatzea dugula helburu. Hasieratik

esan dugu, adierazpen askatasuna bermatzea dela gure nahia eta horretarako, kartel eta pankartak ezartzeko guneak sustatuko ditugula; baina kasu guztietan, errespetuak ukazinezko printzipioa izan behar du.

Dagoeneko herritarren hainbat kexa jaso ditugu BAZen. Horregatik, pankarta erraldoi horiek jarri dituztenei hausnar dezaten eskatzen diegu eta hala erabakitzen badute, ken ditzatela ezarritako kartelak.

Gure aldetik, baina, jai zoriontsuak opa izatea besterik ez zaigu geratzen. Espero dugu datozen egunak jai giro eder eta baketsuan igarotzea.



POTTO GORRIEN ERANTZUNA

Emakume guztiak beldurrarekin hezi gaituzte. Gure heziketa "Puta" izendatuak izan ez gaitezen bideratu dute. Bizi txarreko emakumeak, kontrolatuak eta lanbide okerrekoak. Prostituzioaz, putez, estigmez... hitz egin behar dugu. Ikusarazi, salatu eta eraldatu behar ditugu. Edo gure egin. Eta "puta" izatea, sexualki askea, independentea, nor bere buru eta gorputzen jabea, langilea, sistemaren kontrakoa... izatea esan nahi badu, gu ere putak gara! Eta hori da, hain zuzen, irudikatu nahi izan duguna.

Batzuentzat, iraingarria da gure aluak odoletan ikustea, odol hori hilero isurtzen dugu, isuri dugu eta isuriko dugu. %51 gara, eta ez dugu onartuko gure gorputzak iraingarritzat jotzea, are gutxiago gure odola.

Iraingarria dena da aste betean lau emakume erailak izan eta ezer ez esatea. Iraingarria da Erkoreka jaunak gertakari horiek genero

biolentzia ez direla esatea. Iraingarria da harreman afektiborik behar izatea hilketat bat biolentzia matxistadela esateko; hortik kanpora biolentzia matxistarik egongo ez balitz bezala. Iraingarria da Ibarra eta Iruneko jaietan, 6 emakume drogatu eta bahitzea. Iraingarria da aste betean hori guztia gertatu eta zuen ahotan puta Juanen pankarta bakarrik egotea. Iraingarria da gure baginak eskandaluzkotzat jotzea. Iraingarria da horrekin izutzen den jendarte matxistata.

Guk gure bidean tinko jarraituko dugu, jakin badakigulako borroka feministak egingo gaituela herri eta hurrengo hilean ere kuleroak, tangak... odolez zikinduko ditugula!

**Gora Puta
Juanak!**

**Gora Borroka
Feminista!**



Pottogorrien iritzi artikulua San Valentin egunaren harira

Arrosa, bonboi eta bihotz askoren eguna, faltsutasunez betetako eguna, merkatuak eta merkatuarentzat sortutako eguna. Badirudi Otsailaren 14 batez opari kurtsiak egiteaz erakusten diogula munduari zenbat maite dugun gure bikotea.



Arrosa, bonboi eta bihotz askoren eguna, faltsutasunez betetako eguna, merkatuak eta merkatuarentzat sortutako eguna. Badirudi Otsailaren 14 batez opari kurtsiak egiteaz erakusten diogula munduari zenbat maite dugun gure bikotea. Bikotea bai, eta nola ez, heterosexuala. Gizonak emakumeari arrosak edo objektu "femeninoren" bat oparituko dio, denda batean San Valentin egunerako sortutako atalean erositako balio sentimentalik gabeko objektua.

Antzina, Otsailaren 14a ugalkortasunari omendutako eguna zen. Emakumeoi animalia larruz egingako "latigoz" jotzen gintuz-

ten, honela gure ugalkortasuna handituko zelakoan. XX. mendetik aurrera festa hau garaiko Britainia Handi aurretatuak erromantizatu egin zuen, gaur egun dena bihurtuz eta globalizazioaren ondorioz apurka-apurka mundu osoan zehar zabaldu zen, hau ospatzea ohitura bihurtuz. Maitasuna materializatu egin dugu; "bonboiak oparitzen badizkit maite nau" hainbestetan entzun dugun esaldia. Gero eta diru gehiago xahutu oparitan gero eta gehiago maiteko nau.

Eta urte guzti hauetan maitatu dugula jakina da, baita maitatzen jarraituko dugula ere, baina San Valentin egunean saltzen diguten maitasun ereduari jarraituta? Baita zera ere! Saltzen diguten maitasun ereduak zer ekarri digu urte

hauetan? Emakumearen zapalkuntza hemen ere: zenbat eta zenbat nerabe (eta ez hain nerabe) bere bikotekidea delakoa-gatik baldintzatuta (beste mutilekin ez hitz egiteko, zer egin behar dugun esan beharra...) Edozein arazo dagoela ere harremanaren iraupena luzatzera baldintzatuta, ezkontzetan esaten den lez heriotzak banandu arte. Bikoterik eduki ezean berriz, pertsona osoa ez zarenaren ustea, zoriontsu izateko bikotea eduki beharra...

Gainera, harremanaren osasunaren bermatzea ere, emakumearen betebehartzat jotzea, sentimenduen ardura... Beste edozeinen gaineratik bikote harremana jartzea, bizitzaren erdigunea izango balitz bezala. Eta horrelako adibideekin egunkari bat bete genezake.

Ez dugu maitasun erromantikoan sinesten: ez dago printze urdinik (itota ez badago ez behintzat), ezta laranja erdirik ere (zukua egitekoa ez bada). Nazkatuta gaude gizabanakoa pertsona osoa ez dela entzuteaz. Kokoteraino gaude San Valentin bezalako egunez. Kapitalismoaren eskaparate gorenean jartzen da ikusgai gizartea, maitasun erromantikoari men eginez.

Ustelduko zaizkigu loreak, jango ditugu txokolate kaxa guztiak, irentsitako koloretako bihotzak botako ditugu, mutilak jantzen uzten ez digun gona hori jantziko dugu, kalera aterako gara munduko irribarrerik handienarekin, ispilura begiratu eta irri bat marraztuko zaigu aurpegian, mundua jatera joango gara eta San Valentini sua emango diogu. Maitatuko gara eta erakutsiko diogu/diegu maite dugun/ditugun horri/horiei Otsailak 14 batez eta gainontzeko 364 egunetan zer sentitzen dugun. Orduan hasiko gara bizitzen!




Jaialdi Feminista

Azaroak 25aren arira, "emakumearen aurkako indarkeriaren aurkako eguna", 26an jaialdi feminista egitea erabaki genuen. Askotan egun horretan emakumeak biktimizatzeko joera egoten da, karteletan ubeldutako begiak, emakume ahulak, jipoiuak... erakutsiz. Jaialdiaren helburua biktimizazio horri buelta bat ematea izan zen, saretzea eta emakumeen ahalduntzea azpimarratuz, ikuspegi positibo eta indartsuagoa ikusaraziz eta hemen gaudela erakutsiz.



Egunean zehar hainbat kritika eta komentario jaso genituen alu erraldoi batekin poteoan irteteagatik. Zergatik hainbeste kritika alu bat ateratzeagatik? Hain arrotza al da alu bat kalean ikustea? Ohituago al gaude zakilak ikustera, aluak ikustera baino? Zenbat aldiz ikusten ditugu zakilak herriko kaleetako pareta eta abarretan margotuta? Ba al dakigu alu bat marrazten????

OSATU MARRAZKIA!!



GAUAK, KALIAK GURIAK DIE!!

MATXIRULO ENTZUN PIN PAN PUN!!

GORA BORROKA FEMINISTA

MARITXULO SUTARA!

ARRASATEN ERE BOLERAK BAGAUDE

GORA BORROKA FEMINISTA

GAUAK, KALIAK GURIAK DIE!!

MARITXULO SUTARA!

MATXIRULO ENTZUN PIN PAN PUN!!

ARRASATEN ERE BOLERAK BAGAUDE

GAUAK, KALIAK GURIAK DIE!!

GORA BORROKA FEMINISTA

MARITXULO SUTARA!

ARRASATEN ERE BOLERAK BAGAUDE



APIRILAN ZER??

Noiz: Apirilak 23, domeka
Non: Oihaneder Euskararen Etxean
Ordutegia: 19:00-21:00
Hitzaldia: "Ilustrazioek hitz egiten dutenean"
Hizlariak: Elena Odriozola, Maite Gurrutxaga eta Helena Azkarragaurizar.

NOIZ: Apirilak 25, asteartea
Non: Azpeitiako Emakumeen Txokoa
Ordua: 18:30
Hitzaldia: 'Familia amabakarren egoera ezagutz'

NOIZ: Apirilak 28, ostirala
Non: Azpeitiako Emakumeen Txokoa
Ordua: 19:30
Saio berezia: 'Neskafreskak'

MAIATZAN ZER??

Desazkunde ekofeminista
Noiz: Maiatzak 6, zapatua
Non: Arrasteko Emakume Txokoan
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 15:30-19:30
Euskaraz
Matrikula: 12€/15€

Emakume abertzaleon
7. topaketa feministak
Eguna: Maiatzak 6,
Zapatua
Non: Berriozar

Saio berezia: 'Historiarako emakumeak: Dolores Ibarruri ezagutzen'
Eguna: Maiatzak 9, asteartea
Ordua: 18:30
Non: Azpeitiako Emakumeen Txokoa

HITZ ZT EGIA

BINARISMOA: mundua bi ezaugarri edo kategoria kontra-jarrien arabera antolatzeko modua da (ongi-gaizki, gizon-emakume, txuri-beltz). Kontrol funtzioa du, botere harremanak sortzen baititu, kategoria bat bestearen gainetik dagoelako. Zapaltzaile-zapaldu harremana sortzen da.

KAPITALISMOA: kapitala oinarritzat duen sistema da. Modu honetan pertsonak gizartearen erdigunean egon beharrean, kapitala dago. Jabego pribatuan eta merkataritza librean oinarritzen dena ekonomia eta jendarte sistema izango litzateke. Ez da ekoizten beharrak asetzeko helburuarekin, baizik eta kapital gehiago sortzeko.

HETEROPATRIARKATUA: historian zehar forma desberdinak hartzen joan den antolakuntza politiko,ekonomiko, erlijioso eta soziala. Sexuen araberako rolen banaketa eta erlazio hierarkikoa ezartzen ditu pertsonen artean, hau da, gizonak emakumea menperatzen du. Gainera jendartearen funtzionamendurako heterosexualitatea ezinbesteko eredu bakar gisa oinarri hartzen du. Erregimen honek bazterketa, ikusezintasuna edo jazarpena eragiten du.

QUEER: sexu joera eta sexu identitatea zalantzan jartzen dituen teoria da. Queer hitza ingelesez "arraro", "bitxi", "ez ohiko" esan nahi duen iraina zen eta jatorrian homosexuali irain egiteko erabiltzen bazen ere, gizartearen heterosexualitatea onartzen ez duten eta ezarritako generoak zalantzan jartzen dituztenek berreskuratu dute. Queer teoriaren arabera, sexu orientazioa eta sexu identitatea gizarte eraikuntzaren ondorio dira, eta beraz, ez dagoela biologikoki aurrez determinatutako sexu rol edo jokaerarik.

